


Astekaria



elgoi



*Mila esker **BARREN**en 100. zenbakiko ospakizunetan parte hartu duzuen guztioi!*

Kamisetak salgai BARRENen eta Elgoibarko Izarran (haundiak 600 pta, txikiak 400 pta)

EATE

Erentxun etorbidea, 9
Arrona Goikoa - ZESTUA
☎ 14 76 93

JATETXEA ETA LOGELAK

*Ospakizun berezietarako leku
lasai eta aproposa:
Bataioak • Jaunartzeak,
Ezkontzak • Lagun arteko afariak*



BEREZITASUNAK

- *Arrain eta marisko parrilada*
- *Txangurroa labean*
- *Piper beteak*
- *Penka beteak*
- *Idi txuletak*
- *Etxeko postre bereziak*

*Menuak eta mahaiak aurrez
enkargatu daitezke.*

200 m²-ko terraza ikusgarria

Zure etxetik 25 Km-tara gaituzu. Zatoz!



elgoi**BARREN**

Nafarroa enparantza 2
☎ 74 41 12

ARGITARATZAILEA:

Elgoibarko Izarra.

LAGUNTZAILEA:

Elgoibarko Udala.

ZUZENDARIA:

Alberto Agirreazaldegia.

HIZKUNTZA ARDURADUNA:

Anjel Ugarteburu.

ERREDAKZIO KONTSELUA:

Iñaki Arrieta, Antton Bergara, Edurne Bilbao, Rosa Iriondo, Jose Inazio Sarasua.

KAZETARIAK:

Ainhoa Lodoso,

Jasone Osoro.

MAKETATZAILEAK:

Maiete Rementeria,
Edu Sanz.

PUBLIZTATEA:

Nekane Etxaniz.

ADMINISTRAZIOA:

Josune Fernandez,
M. Angeles Ortuoste.

KOLABORATZAILEAK:

Andres Alberdi, Esteban Antxustegi, Pello Arrieta, Felix Arrizabalaga, Belen Arrizabalaga, Mikel Artola, Mikel Cornejo, Izaskun Elizburu, Jon Etxabe, Jon Eugi, Koldo Galdona, Jose Mari Galdos, Ina Garagarza, Joseba Gorosabel, Lorea Gorostiaga, Xabier Gorriti, Ana Igartua, Maite Iriondo, KOKOE, Joseba Konde, Edurne Korita, Imanol Larrañaga, Antonio Matias, Susana Mujika, Maite Solozabal, Karmelo Urdangarin, Aitor Zabaleta, Julen Zabaleta.

BANAKETA ARDURADUNA:

Imanol Larrañaga

INPRIMATEGIA:

Gertu koop. E.
(Zubillaga Oñati)

TIRADA: 3.500 ale

LEGE GORDAILUA: SS-1.038/92

ISSN: 1133-021X

elgoi**BARREN**ek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.



Komunikabideak eta hizkuntza

Komunikabideak, egun gizartea den puzzle handi horren puska bat direla esan daiteke. Zalantzarik ez da gure egunerokotasunean finkatuak daudela, eta hainbat modu edo formatan jaso baditzaiegu ere, beraien presentzia ukazina zaigu. Aspaldian, gainera, beraien presentzia hutsaz baino beraien indarrak mintzo behar, beraien jendea erakartzeko ahalmenaz, beraien erreperkusioaz.


Komunikabideak hizkuntzaren ondoan ipiniaz bada zer aipaturik. Jakina da hizkuntza komunikabideen atal dela, komunikabideentzat hizkuntza zer den, eta bizitzeko arnasa ematen dietenez derrigorrez erabili behar dutela. Kontrako korrespondentzian ordea, hizkuntzak komunikabideei zor dienaz ahazten garen susmoa daukat. Komunikabideak informazio-emaile soilak ez direla jakinik, ohartu al gara komunikabideen izateak lehenik eta gizartean duten oihartzunak ondoren, hizkuntzari egiten dioten onuraz? Potoloegia iruditzen zait lerro gutxitan esateko, baina

komunikabideak hizkuntza ezagutzeko, lantzeko, zabaltzeko, indartzeko, errotzeko garraio dira. Ikus-entzunezko komunikabideek hizkuntzaren erabilera bultza eta zuzper dezakete, herriari gramatika bide aproposak markatzeaz gain. Idatzizkoak bestalde, hizkuntzaren etorkizuna garantizatzeko gai dira.

Hala ere, bada alde ilunik azken hartu-eman honetan; izan ere, komunikabideak ez dira hizkuntza batek bestean izan dezakeen eragin kaltegarrian orekatzaile. Printzipioz komunikabideek ez dakite hizkuntza hedatuenean dihardutela edota komunikabideez umezurtz haien premian dagoen hizkuntzan ari direla. Printzipioz diot horrela izan behar lukeelako, baina komunikabideek indarra hartu eta boteretsuek bereganatu zituztenetik (edo boteretsuek bereganatu eta indarra hartu zutenetik?), komunikabideak botere-tresna bilakatu zirenetik alegia, badirudi komunikabideek badakitela zein hizkuntzatan jardun eta jantzi, eta zeintzuetaz ahantzi.

Mikel Artola

*Eusko Jaurlaritzako
Kultura Sailak, Foru
Aldundiak eta
Elgoibarko Udalak
diruz lagundutako
aldizkaria*





KEXAK

- Gazte Asanbladak kexa bat bidali du BARREnera. Zuhaitz egunean bost zuhaitz landatu omen zituzten Leku-Ederren, fruituak ematen dituzten zuhaitzak. Horietariko bat landatua zegoen tokitik atera eta bazter batean bota omen du norbaitek eta Gazte Asanbladak ekintza hau salatu nahi du.
- Markina Etxeberrira sarri joatea tokatzen zaion irakurle bat etorri zaigu kexati: Nola da posible San Migelera bidea horren egoera kaskarrean egotea? Urteak aurrera joan ahala gero eta gaizkiago dago bidea eta bada ordua, bere ustez, dagokionak zerbait egin dezan.



TXALOAK

Familia izan berri duen emakume bat etorri da lokalera. Berak, Mendaroko maternitate sekzioko mediku eta enfermerak txalotu nahi ditu benetan jarrera paregabea izan dutelako.

ESKUTITZAK

Ekaitza dakar gure herrira

Elgoibarko etorkizuna, pisu horri eusteko ez indarririk, eta ez tinkotasunik duten eskuetan egongo da seguraski. Eusko Alderdi Jeltzalearen azken erabakiak ekar ditzakeen ondorioez kezkatuta gaudenok asko gara. Lehenengo eta bigarren mailako hiritarririk ez dagoelakoan eta elkarbizitza, ezberdintasunaren errespetuarekin datorrelakoan gaudenok, gainean dugu ekaitza.

Intolerantziak, botere goseak eta elkarriketarako bideak urratzeko ezintasunak osatzen dute Garate eta Orue jaunen kurrikuluma.

Zer asmo dute zenbait burukidek elgoibartar askoren onarpena ez duten bi herritar aukeratzean?

Iritzi politiko ezberdinak alde batera utziz, pertsonetikiko errespetua oinarritzakoa da konkordia eta elkarbizitzarako.

Nire ustetan, EAJk egindako aukeraren ondorioz, hurrengo lau urteak gogorrak eta kezagarriak izango dira; eta taldeek zein herritarrek burua makurtu edo borrokatu, beste aukerarik ez dute izango.

Garateren legealdiak bere alderdian eta Udaletxean arazorik ez badakar, ikusiko dugu. Hori ez da, ordea, nire susmoa.

Jorge Hernando

Eraso sexualak

Gizartean ematen den biolentzia sexistaren adierazpen gordinena litzateke ERASO SEXUALA. Era berean, eraso sexuala ez da soilik bortxaketa. Erasoa sexualaren esparrurik izkutuena etxekoa edo familiarrekoa da. Hauetan ohizkoe-

nak tratatu txarrak dira, egunero eta etengabe pairatzen direnak. Hauek dira gutxien salatzen direnak, bertan dauden erlazio afektiboengatik edota salaketak ekar ditzakeen ondorioengatik. Bestalde, lan esparruan pairatzen den eraso argiena akosoa litzateke. Eta azkenik kalea, nahiz eta teorian lan esparru libreagoa izan, bertan ere ematen dira eraso sexualak (ikutzeak, piropo iraingarriak...).

Gizarte matxista eta patriarkal honek, gizonak iraindu, erasotu eta bortxatu dezakeen objektu sexualtzat dauka emakumea. Kontsiderazio honek jarraitzen duen bitartean erasoak egongo dira eta hauek salatzeke zailtasunak mantenduko dira. Gainera, zailtasunak gainditu eta salatzeraz ausartzen dena ez da sinisgarria izaten.


Guzti hau maila judizialean ere islatatzen da. Salaketa jartzen duena izaten da epaitua eta ez erasotzailea bera. Komunikabideek mota honetako berriak ematerakoan sentsazionalismoaren bideari jarraitzen diote eta ez eraso sexualaren problematikaren analisitari. Erasoa sexuala emakumearen duintasunaren aurkako gertaera den heinean, ondorio batzuk dakartzkio emakumeari; depresioa, autoestima eta konfidantza falta...

Ondorio guzti hauei aurre egiteko emakumeak badu nora jo: Udaletxeko Ongizate Sailera, emakume taldeetara (Elgoibarren Andraize eta Kalera) eta epaitegietara.

Halere, honekin ez da eraso sexualaren problematika konpontzen, ez baita arazo indibiduala, soziala baizik. Eta soziala den neurrian irtenbide sozialak eta orokorrak eman behar zaizkio. Hone-tarako heziketa ez sexista, kontzientziazioa eta sentsibilizazioa bultzatu behar dira.

Andraize Emakume Talde

HARRIGORRIGOIKO ERROTABERRITARRAK





Pilar ikastetxean ateratako argazkia bada ere, Ikastolako 3. mailako gela da honako hau, **1968-69. ikasturtekoa**. Bertan agertzen diren haurrak 8 bat urte zuten orduan eta Pilar ikastetxean egotearen arrazoia zera da: Ikastolak ez zuen OHoko 3. mailatik gorako ikasketarik eskaintzen eta horregatik, behin ikasturte horretatik aurrera, Pilarre-ra joaten ziren OHO bukatzera.

Bertan agertzen diren mutikoen izenak hauexek dira ezkerretik eskumara, aurreko ilaratik hasita:

Lehen ilaran: **Sota, Luis Perez, Jose Martin**

Urrutia eta Norberto Arriola.

Bigarren ilaran: **Jesus Mari Iriondo, Iñaki Odriozola, Jose M. Larrañaga, Patxi Larrea, Patxi Gabiola (†), Valentin Barrenetxea eta Iñaki Basurto.**

Hirugarren ilaran: **Mikel Osoro, Pedro Bastida, Jose Mari Riaño, Fernando Elizondo, Jesus M. Unzueta, Juan M. Ulazia, Angel Arregi eta Kepa Argarate.**

Laugarren ilaran: **Jose Lasa irakaslea, ezezaguna, Jon Etxezarraga, Iñaki Goñi, Imanol Ulibarri, Ladis Elorza eta Jesus Ezenarro.**

**Salvador Celaya**
ITURGINTZA
BILTEGI ETA BAINUGINTZA
BEROGAILU ELEKTRIKO ETA GASDUNAK
Errosario 22. Tel: 74 04 94

Cordon, Vilarchao, c.b.
DEKORAZIOA
MOKETAK, KORTXO BARNIZATUA, PVC ETA PARETAK,
SINTASOLA, ZOLU INDUSTRIALAK, GORTINA BERTIKALAK,
GOTELE ERROTULAZIOA, PINTURA OROKORRA.
San Roke, 7 behe. Tel.74 28 74 - 74 05 70

BARRENen 100. zenbakiko OSPAKIZUNAK

BARREnek 100. zenbakia kaleratu zuen joan den ostiralean. Zenbaki berezi hori modu berezian ospatu nahian hainbat ekitaldi antolatu zituen BARREnek irakurle guztiei eskerronik egiazkoenak luzatu nahian. Dagoeneko egindako esfortzu eta lan guztien erresaka pasatuta dago; dena den BARREnek antolatutako guztiaren artean hona hemen gure argazki kamerak harrapatu zituen oroitzeko moduko hainbat une.

1. Ez ohizko gonbidatuak ekarri zituen BARREnek joan den ostegunean kazetarien eragina eskal gizarlean aztertzeke asmoz. Moderatzaile lanetan Hasier Etxeberria elgoibartarra aritu zen eta hizlari modura, Martin Ugalde Egin-ekoa, Amatiño ETBko zuzendaria eta Argiako Pello Zubiria.

2. KiroIBARREN 94ko ekitaldian Artegi elektro-tresna dendak emandako Sony bideoaren zozketa egin zen eta zorteduna, Arantza Elizburu izan zen. Argazkian Arantza Artegiko ordezkariarekin.

3.-4. Poti, Kiki eta Kiriki pailazoak, Ane Gabarain, Aizpea Goenaga eta Elena Irureta dira.



Txikienei zuzenduriko pailazo saioa eskaini zuten Kultur Etxean, estraineko emanaldian.

5.-6. BARRENen ospakizunetan ezin haurrak -ahaztu. Larunbat arratsaldean "Aitormena", "Lau Teilatu" edota "Guk Euskaraz" bezalako kantuen abeslari bihurtzeko aukera izan zuten euskal Karaokean. Argazkian ditugu irabazle atera zen neska-mutil taldea.

7. Xabier Leteren bi ordu eta t'erdiko kontzertuak eman zion kultur ikutua astebukaerarako presatutako egitarauari

8. I. BARREN krosa-Txankakua sariaren lehen edizioan 20 bikote misto osatu ziren, esfortzua egin aurretik, irrifartsu eta fresko-fresko ageri direnak. Irabazleak Olga Lopez eta Pablo Santiago ermuarra izan ziren.

9. BARREN kroseko benjaminetan, helmugara iristeko unean dugu Egoitz Martinez besoak altxatuz. Nesketan Mireia Huidobro izan zen lehena.

10. Sari banaketa ekitaldia. Parte hartzaile guztien artean Txankakua elkarreak emandako 5.000 ptako sei txeke eta 15.000 ptako hiru zozketatu ziren.

11. Infantilen lasterketan mutilen taldean, Gorka Sanchezek irabazi zuen. Nesketan, berriz, Julia Quintana iritsi zen lehen postuan.

12. Jaia amaitzeko, bazkaria izan zen Kiroldegian. 100 bat lagun eta 50 bat haur guztira.

13. 100. zenbakiko tarta mozteko unean txaloen eta zorionen artean ezkontideak bailiran ebaki zuten tarta Alberto Agirreazaldegi BARRENeko zuzendariak eta Juan Mari Eguren Udaleko Euskara Batzordeko presidentek. Elkarlanaren adibide erakusgarria.



"Goenkale" jarraitzen al dudan?

Nork ez du inoiz Goenkale ikusi? Ziur nago hau irakurtzen ari zaretenotatik bat baino gehiago ETB1eko telesail honen jarraitzaile sutsuak zarete. Izan ere, Euskal Herriko edozein txokotan, egunero egunero Goenkale ikusi asmoz telebista aurrean jartzen den makina bat jende aurki daiteke. Haren jarraitzaile harrigarria bada ere, are harrigarriagoa deritzat ikusle goaren aniztasunari. Bai ETB1ean eta bai beste telebista kateetan ere, saio gehienak ikusle mota jakin batentzat besterik ez dira. "Superbat", esate baterako, hurrei zuzendua dago, eta ez dut uste 40-50 urteko pertsona batentzat oso dibertigarria izango denik. Bazkalosteko "kulebroiak" ostera, ordu horretan etxean dauden etxeoandre eta ikusle batzuek baizik ez dituzte ikusten. Goenkale, ordea, jende ezberdin askok ikusten du zahar zein gazte, emakume nahiz gizonezko, errealzale zein athleticzale, euskaldunek eta ez hain euskaldunek ere.

Nire iritziz argi eta garbi dago Euskal Herrian egina izateak asko lagundu duela arrakasta hori lortzen. Gure inguruko gertaerak bizi dituzte pertsonaiek eta beste edozein telesail amerikarretan baino hurbilago sentitzen ditugu Goenkaleko arazoak. Jendeak nahiago du herri kutsuko euskara teleaileko euskara hotza baino; hobeto ulertzeaz gain, sinesgarritasun handiagoa ematen baitio telesailari. Orain arte Euskal Herrian egindako

beste zenbait telesail egon diren arren ("Bi eta bat", "Penelope enea"...), batek ere ez du izan Goenkalek adinako egunerokotasunik. Astelehentik ostiralera, errealitatean den egun bera gertatzen da telesailaren barruan: otsailaren 4a bada, ez da Santa Ageda bezperako konturik faltako; edota ihauteriak izan direnean denak mozo-rotuta azaldu dira.

Azkenik, eta bukatzeko, zergatiak alde batera lagata, begi bistakoa da Goenkalek izan duen arrakasta. Eguneroko elkarrizketa gai bihurtu da eta norbaitek kapituluren bat ikusi ez badu, beti dago "Lasatarren" tirabirak kontatzeko prest dagoen lagun bat. Utziko al du Karlosek droga? Zeren atzetik dabil Teresa? Zer gertatuko da Gina eta Maria Luisaren artean?...

Galdera hauek eta beste mila erantzuteko jar ezazu ETB1 iluntzeko bederatzi t'erdietan.



ANE GUILLÓ ARAKISTAIN

**FALANJA
OKINDEGI
VINOPILEDGI**

San Frantzisko, 4
Tel. 74 07 35

**ZALDUA
ITURGINTZA**

GAS ETA BEROGAILU
INSTALAKUNTZAK

Urasandi 26. Tel: 74 05 30

Sonia
Dantza Eskola



*Elgoibarren
lehenengo aldiz!*

- BALLET KLASIKOIA
- DANTZA
- KONTENPORANEOA
- MANTENUKO
- GIMNASIA
- ESPRESIO KORPORALA

Errosario kalea, 31
☎ 74 38 39 / 10 18 37

Jose Ignacio Ullacia Echeverria

AROTEGIA- OBRAK- IGELTSARITZA

Santa Klara, 10-1 Etxea: Santa Ana, 30
Tel: 74 05 47 Tel: 74 04 68

OIERKI IGONGAILUAK

Urrutira deitu gabe bertakook segiduan
konponduko dizugu igongailua

☎ (943) 11 35 15 ● ABERIAK (943) 11 35 15
Bista Eder, 11 (sotanoa) ● 20600 EIBAR

Jarraitzen al duzu "Goenkale"?



TANIA SANZ
8 urte, ikaslea

Bai. Larunbatetan ikusten ditut, kapitulo guztiak batera. Gehixen Ainhoa gustatzen jata hobetuen itxen dabalako eta gitxien Mikel, drogadiktua dala-ko.



ANTON IRANZO
23 urte, mantenuko langilea

Ikusi izan ditzut kapitulo batzuk baina ez dot jarraitzen ze oso ordutegi txarra dakat lanian. Neri telenobelak ez die sekula engantxau.



BEGONA ELIZONDO
38 urte, etxekoandrea

Umiak ikusten dau eta nik jarraitzen dot. Gehixen Karlos gustatzen jata. Lehen ere "Ines Duarte, secretaria" venezolana ikusten naban.



CIPRI MIGALES
15 urte, ikaslea

Ez, ze ez dakat denborarik baina badakit zertaz dihoan; nere lagunek askotan hitzegiten dute eta entzun dut Jose Mariri loteria tokatu zaiola.



KONTXITA ZELAIA
68 urte, etxekoandrea

Bai, ikusten dot. Neri dana gustatzen jata, ez dakat inor apartatzeko baina Maria Luisa mundiala da. Sekula ez dot hainbeste segitxu telenobela bat.



PAULO ETXANIZ
75 urte, jubilatua

Bai, bastante politxa da baina deportia badao berak daka lehentasuna, ez naiz hain itsua. Andriari gustatzen jako asko.



**HERRI-
GAIN**
ERRETEGIA
San Pedro auzoa 4
(☎ 74 30 40) ELGOIBAR



**ETXE ASEGURU BAT
ETXE BAKOITZERAKO**
Pedro Muguruza 4 behea. ELGOIBAR. ☎ 74 26 99

■ Zaborra, ura eta alkantarila erreziboak

1995eko lehen hiruhilabeteari dagokion uraren, zaborraren eta alkantarila sarearen erreziboak martxoaren 22tik apirilaren 8ra arte, biak barne, ordaindu ahal izango dira Udaletxeko bulegoetan goizeko 11etatik 1era bitartean. Epearen barruan ordaintzen ez diren kuotei %20ko igoera ezarriko zaie. Tramiteak errazteko ordainketa etxeratzea aholkatzen du Udalak.

■ Filatelia elkartearen Ohizko Batzar Nagusia

Filatelia Elkarteak Ohizko Batzar Nagusia egingo du igande honetan, hilak 26, txosten ekonomikoa, ihardueren memoria eta zuzendaritza berria onartzeko asmoaz. Bilera hasteko ordua goizeko 11,45etarako jarria dago lehen deialdian eta 12etarako bigarren deialdian. Batzarraren ostean materiale sorta eder bat zozketatuko da partehartzaile guztien artean. Egunean bertan, kuota zorretan duten bazkideek ordainketa egiteko aukera izango dute eta gogoratu bide batez, behin bilera hasitakoan, ohizko zerbitzuak eten egingo direla.

■ Euskal otargintzari buruzko erakusketa

Gaurtik hasita, hilak 24, Luis del Barrio artisauak egindako otarrak ikusgai egongo dira Kultur Etxeko erakusgelan apirilaren 11 arte. Euskal Herriko otargintzari buruzko erakusketa hau gaztain eta urritz zumitzezko monografikoa da. Aintzinako lanbide honetan erabilitako zenbait otar mota, lantresna eta materiale ikus daitezke. Luis del Barriok ehundik gora otar aurkezten ditu; bakoitzak argibide bat darama idatziz, bidez eta diapositibez lagunduta. Ordutegia ohizkoa izango da: astegunetan 19,00etatik 21,00etara eta jaiegunetan 12,00etatik 14,00etara.

Aparteko kontzertuak izango dira musikeskolaren X. urteurrenean

■ nazio Bereziartua musikeskolaren 10. urtebetetzearen ospakizunen barruan bi kontzertu antolatu dituzte, bat igandean, hilak 26, eta bestea hilaren 30ean. Igandean Pasaiaiko Illunbe orkestaren kontzertua izango da Herriko Antzokian Joseba Garmendiak zuzenduta. Saioa eguerdiko 12,30etan hasiko da. Datorren astean, hilaren 30ean, erusiako Friedrich Lips soinu-jole

famatuaren aparteko kontzertua entzuteko aukera izango dugu. Lips munduko soinujolerik onenetariko da, mundu osoan eman ditu kontzertuak eta nazioarteko ikastaro eta seminario guztietan bere partaidetza eskatzen da. Kontzertua Herriko Antzokian izango da arratsaldeko 7,30etan. Kontzertua ezezik, musikeskolako ikasleei soinu klaseak ere emango dizkie.

Txinar ikasleak Elgoibarren



■ Joan den ostiralean 15 ikaslez osatutako txinar talde bat herri-rra heldu zen Erreminta Makinen Institutuan espezializazio ikastaro bat egin asmoz. Astelehenean harrera ofiziala egin zitzaion Udaletxean Jose Inazio Elkoro-Iribe alkatearen eta IMHko arduradunen partehartzearekin. Pekin, Chang, Chun, Shoanxi, Nanjin eta Harbing hirietako ikasleak dira eta gehienak erreminta makinarekin lan egiten duten enpresetako langileak dira. Elgoibarren egongo diren 92 egunetan zehar itzultzaile baten laguntza izango dute. Txinarren bisita hau ICEX (Kanpo Komertzio Institutua) AFM (Erreminta Makinen

Fabrikatzaileen Elkarte) eta MOF-TEC (Merkataritza Ministerio Txinarra) erakundeen arteko hitzarmen bati esker gauzatu da eta asmoa kontrol numerikoaren inguruko jakintza eskuratzea da, han erabiltzen duten erreminta makina konbentzionalagatik ordezkatzeko. Egonaldi honen ondoren, hemengo enpresek, hazten ari den merkatu txinarraren sartzeko aukera izan lezakete.

Txinar ikasleak Elgoibarrera etorri aurretik, hautaketa frogak gainditu behar izan zituzten. 45 ikasletik 15 aukeratu zituzten IMHk garatutako Sexante izeneko hautaketa programaren bidez.



San Lorentzoko Pilota Txapelketaren finalak joan den larunbatean ospatu ziren. Bigarren mailari dagokionean Panizo eta Aitor nagusitu ziren De Pablo eta Otañoren aurka, azken emaitza 22-17 izan zelarik. Lehen kategorian, berriz, lehia handiko partidu baten ostean, Agirrebeña eta Txurruka bikoteak jantzi zuen txapela, 22-18 irabazi baitzuten Antxon eta Sabinoren aurka. Jokalaririk aipagarrienari ere eman zitzaion oroigarri bat, kategoria bakoitzeko bana; 2. mailan Panizo eta lehenengo mailan Agirrebeña. Bukaeran otar baten zozketa egin zuten zenbaki saritua 259 izanik. Zenbaki hau aterako ez balitz, erreserbakoa 322 zenbakia da.

Atzo gauean pasa zen Korrika

Atzo gauean, 1,30ak aldera, Saturixon lehenengo eta Sigman gero, hartu zuten elgoibartarrek Korrikaren testigua. Arratsaldean Korrika txikia ospatu zen. Herriko OHOk hiru ikastetxeetako hurrek hartu zuten parte gero Plaza handian Elgoibarko Izarrako Bertso Eskolako ikasleen saioa eta ondoren berbena izan zutelarik. Trikitilariak, Itxaropena abesbatza, bertsolariak eta afari herrikoa giro ezin hobean izan ziren gau partera Korrika iritsi aurretik. Hona hemen kilometroak hartu dituzten elkarteak: AEK, C.D. Elgoibar, Elkarri, Etxepe, Errotatxo, EKEKEI,

KOKOE, Elgoibarko Izarra, Gestorak, Ikastolako Gizarte Kontseilua, Pilarreko Guraso Elkarte, Herri Eskolako Guraso Elkarte, Institutuko eta Lanbide Eskolako Irakasleak, Institutuko eta Lanbide Eskolako ikasleak, Kimetz elkarte, Langileak, Txankakua, Jose Gurrutxaga, Felix Etxeberria eta Jabier Zengotita (Euskadiko Kutxak ordaindutako km.), Zazpiki eta HB. Domekan amituko da Korrika gasteizen eta bertara joateko Elgoibarko AEKk autobusa antolatu du. Sigman aterako da goizeko 10,45etan eta prezioa 800 ptakoa izango da.



■ Aintzinako errentak dituztenentzako laguntzak

Onartu berri den Hiri Alogeren Legeak aitortzen duenez, etxebibitzak edo lokalak aintzinako errentekin alokatuta dituzten konpentsatzeko laguntzak emango dituen lege bat aurkeztu beharko du Gortetean Gobernuak urte honetan zehar. Laguntza jasotzeko hil honen 31 baino lehen alogeran dituzten etxebizitzaren jabeek izena eman beharko dute. Garraio, Ingurugiro eta Obra Publikoen Ministerioko Etxebizitzaren Alogeren Zentsuan. Eskabideak Ministerioko ordezkarietan edota Deba Garaia inbiliarriak Errosario kaleko 34ean duen bulegoan eskura daitezke. Eskaera egitea aholkatzen dute Deba Garaia teknikoek, oraindik laguntzaren zenbatekoa jakiterik ez dagoen arren.

■ Kintoen bazkaria

1939. urtean jaioetako guztiek, 1960ko kintoak direnek, bazkaria izango dute hil honen 25ean San Pedro tabernan eguerdiko 2,30etan. Norbaitek izena eman nahiko balu 74 00 10 edo 74 11 05 zenbakietara dei dezake. 1953ko kintoek, berriz, datorren apirilaren 22an egingo dituzte urteko ospakizunak, hala nola, hildako kideen oroimenezko meza Maalan eta ondoren, Baltasar elkartearen bazkaria. Apirilaren 16a baino lehen izena eman Errosario kaleko estankoon, Xabier ileapaindegian edo 74 03 60 zenbakira deituta.

■ Morkaikoren irteera

Morkaikok Frantziako Gavarnie-ra irteera antolatu du Aste Santuko lau jaiegunetarako. Bi aukera daude, "Jan da lo" aterpetxean pentsio erdia edo lo egitea bakarrik. Lehen kasuan prezioa 17.000 ptakoa da bazkideentzat eta 18.000 pta bazkide ez direnentzat, eta bigarrenean 9.000 pta bazkideentzat eta 10.000 pta ez direnentzat. Plazak mugatuak direnez lehen bait lehen izena ematea komeni da. Eginkizun honetarako azken eguna apirilaren 5a izango da.

Jose Elizondo:

"Parrokiko konfesionarixuak tailatzen gabiz"

66 urte dituen elgoibartar honek gogoan dauka nola umea zenean eskolan berak eginiko marrazkiak hartzen zituen irakasleak eredutzat beste ikasleen aurrean, "norbait izan nahi baduzue, honela marraztu behar

duzue". Hamairu urte zituenean hasi zen lanean, Debako Jose Peña altzari fabrika batean. Haseratik tailatzen jarri zuten eta ofizio zena, gaur egun, jubilatua dagoenean, afizio bihurtu zaio.

- Gazte hasi zinen tailan.

- Bai, hamairu urte izango nitxun. Amak tratua in zaban nausixakin, 10 erreal kobratuko nitxun egunian. Baina, nausixak igarri zaban esku ona nakala eta gehixau pagau zian. Amanan jun nitzanian segiduan bialdu zian berriz ere fabrikara, nausixa kunfunditxu in zala eta bueltan dirua eramatera, baina harek atzera bialdu zian etxera, emandakua ondo pagauta zauala eta.

- Tailan hasi eta segi.

- Bai, nik lehen jakin ere ez nakixan tailia zer zan baina... Behin Canariasetik etorri zan enkaragua bargeñuak itxeko. Askori eman ziguten enkaragua eta politxena asmatzen zabanari emango ziuena danak itxeko agindua. Nik indako maskaria eta dibujua gustau jakuen eta 17 urtekin "oficial de primera" in ninduten.

- Halere, gero lagata izan zenuen, ez?

- Bai, 30 urtian ez nabai tailarik egin. Caja Laboralian egon nintzan lanian eta ez nakan denborarik. Garai batian infartua euki nabai eta orduan



"30 urtian lagata euki nabai tailia, denborarik ez nakan eta. Baina erramintak beti gorde izan ditzut eta haietxekin ibiltzen naiz ondiok"

denboria pasatzeko eta diru piskat ateratzeko ekin nion berriz ere eta oin, jubilautekuan, berriz ere hasi naiz. Erramintak gordeta nitxun, noizian behin olixo piskat ematen niuen eta ondiok ondo daude.

- Plazatan erakusten duzu zure lana.

- Bai, lehenengo Mutrikuko plazan izan nintzan eta gero Llodion. Llodion premixua zauan eta nik irabazi nabai, 50.000 pta. Oin Elgoibarren egoten naiz, San Antonetan, baina Elgoibar herri txarra da, ez da apenas saltzen.

Jendia urreratu eta ikusi bai, baina erosi, apenas.

- Egin dituzun gauzen artian berezirik?

- Danak dia espezialak baina itxeko denboria eta libertadia oin dakat, lehen lan asko eta neretzat denbora gitxi nakan. Muebliak asko in ditzut, eskopeten kulatak ere, baitxa baserri-xen fatxadak ere, Makatze-ta, Atxarte azpizan dauan restaurantian fatxadia ere neuk egin nabai, esku-duak... Behin in nabai Bilboko eskudo bat, hain zan zaharra Bilbo izena ere V-kin idatzitxa zauala,

"Vilvo".

- Zein da gustukoen duzun egurra?

- Gehixen intxaur beltza baina ez da apenas ikusten eta karuda. Haritza eta gaztaina ere erabiltzen ditzut, baitxa pagua ere.

- Santuen pazientzia izaten ikasiko da tailan, ez?

- Ya lo creo! Pazientzia haundixa bihar da eta oso inportantia da baitxa ere betak ezagutzia, leku askotan egurrari jata

golpe ederra emanda ere ez dao ezer pasatzerikan baina beste batzuetan... Akabo lan guztia!

- Emaztea konkistatzeko oparirik egin al zenion?

- Bai, baina gure andriak ez dau batere apreziatzen, armaixuan sartuta daka nik indako kutxa txiki bat.

- Konfesionarioak konpontzen ari zara orain, ez?

- Bai, soltau ditzugu danak goitxik behera eta lehengo egunian Loiolan izan ginan, bertakua ikusten. Angel Beristain eta bixok ari gera tailan, bi konfesionarixo konponduko ditzugu. Lana bada baina nik uste ederrak geratuko diazela.

Nekazalturismoa, turismo mota berria

Azken urte hauetan Euskal Herrian turismo mota berri bat jaio da, nekazalturismoa. Jende askok honen berri ez duen arren, beste asko dira atzerritik bai eta Estatu espainiarretik ere ostatu hauetara hurbiltzen direnak. Mendaron bada gisa honetako baserri bat: Atxuri. Bertara joan gara eta Maribelekin hitzegin dugu, baserri hauei buruz zerbait gehiago jakiteko.



Atxurira madriletik eta Bartzelonatik etortzen dira gehienbat.

Nekazalturismoak baserriak arruntak ditu oinarri bezala. Baserri hauek, ostatu bezala egokitzen dira, gehienez 12 lagunentzako tokia izanik. Bertan lo eta eguneko jatordu guztiak egiteko aukera dago. Era honetara, oporrak lasai, jende artean

ibili gabe eta nekazal munda zein naturarekin harremanetan jartzeko parada ezin hobea da.

Mendaron badugu honelako baserri bat, Atxuri. Bertara gerturatzeko diren gehienak Madrilekoak eta Bartzelonakoak dira nahiz eta Euskal Herrikoak bertakoak ere hurbiltzen diren.

Toki hauetara hurbiltzen den jende gehiena hirikoa da eta kontu ugari entzun ahal izan ditugu. Maribelen hitzetan, "Behin Bartzelonako ume batek hor kanpuan behixa ikusi zauanian nere gizonari galdetu zion ia pilekin funtzionatzen zaban". Isiltasuna nagusi da Atxurin eta hau oso berezia egiten

zaio hiritik datorren jendeari. Orokorrean oso gustura pasa ohi dute beraien oporraldia eta topikoa dirudien arren, igarotako egunen ostean askok aurrez Euskal Herriari buruz zuten iritzia txarra aldatu omen dute.



Nekazalturismoaren boom-a

Nekazalturismoa, esperientzia berri bat dela uste dut baina Euskal Herrian ez du ospe haundirik oraindik, nahiz eta Atxuri, adibidez, 122.a izan. Nekazalturismoa barnekaldeko zona turistikoa bultzatzeko turismo mota berri bat da eta, era berean, baserriko bizitzari irtenbide berri bat ematen dio. Baserriko bizitza oso gogorra da berez eta aurrera irtetzeko oso ondo prestatua egon behar da,

ganadu askorekin eta abar. Nekazalturismoarekin, ordea, lan hau piskat arindu egiten da eta baserriari bere etekina atera dakioke. Nere ustez harritzekoa da kaleko jendeak oraindik ez jakitea zer den nekazalturismoa. Hasera batean Castilla eta Andalucian sortu ziren mota honetako etxeak, "Casa rural" deritzanak. Oso pozik gaude Atxurik izan duen harrera onarekin eta positiboa dela deritzot.

Lourdes Bastida Elorza

1995.eko Santa Ana jaien kartel lehiaketa

Mendaroko Udalak kaleratu du, dagoeneko, 1995 urteko Santa Ana jaien txartelaren eta egitarauaren azalaren lehiaketa. Hona hemen aipatu lehiaketaren oinarriak: txartelaren neurria 60x40 zmtakoa izango da. Erabili beharreko teknika libre eta euskarria, berriz, gogorra. Ondorengo testua agertu behar da, "Santana jaiak. 1995eko uztaiak 22tik 26ra. Mendaro". Lehiaketan Mendaroko edonork parte har dezake eta irabazleak 25.000 pta jasoko ditu. Lanak aurkezteko epea apirilaren 28an amaituko da.

Elkarteentzat dirulaguntzak

1995eko urtarrilaren 26an Udaltzatzen egin zuen bileran, Mendaroko kirol eta kultur elkartei ondoko dirulaguntzak ematea erabaki zen: Arno Guraso Elkarteari 530.000 pta 1994-95 ikasturtean zehar egingo dituzten ekintzetarako. Kilimon futbol taldeari 800.000 pta 1994-95 denboraldirako. Mendaroko Gazteak Taldeari 175.000 pta 1995-1998 urteetan dantzarako jantzi eta materialea erosteko eta 85.000 pta 1995.eko Umeen Euskal jaia antolatze eta Lagun Betikoak jubilatuen egoitzari 200.000 pta 1995. urtean jubilatuentzat antolatzen dituzten ekintzetarako.

Mendi irteera Izarraitzera

Arno Guraso Elkarteak Izarraitzera egun osoko mendi irteera antolatu du apirilaren 30erako. Irteera goizeko 9etan izango da Ikastola aurrean. Prezioari dagokionean 500 pta, Ikastolako haurrek ezik.

Drogomenpekotasunari buruzko zikloa

Orain gutxi amaitu berri dira gurasoei zuzendutako hitzaldiak, guztiak drogomenpekotasunaren gaiaren ingurukoak. Halere, apirilaren 4ean eta 6an, asteartean eta ostegunean, gazteentzako lantegi-ikastaroak izango dira Mendaroko Kultur Etxean, arratsaldeko 7etatik 9,30etara. Aipatu lantegiak Txus Congil-en esku egongo dira.



EGANA

"Kilimon" Erregional I. mailara igo da

Aurtengo denboraldia amaitzeko hiru partidu geratzen dien arren, Kilimon taldea Erregional 1. mailara igo da, jadanik, 5. postuan sailkatua dagoen taldearekin 6 puntuko aldea duelako eta golak Kilimoiren alde baitaude. Geratzen zaizkion partiduak hauek dira: Eibar-Kilimon, Kilimon-Mutriku eta Arrasate-Kilimon.



Korrika txikia izan zen igandean

Pasa den igandean ospatu zen mendaron Korrika Txikia. Herriko gaztetxoek Mendaroko kaleak zeharkatu zituzten Korrikaren lemapean trikiti doinu eta guzti. Korrika zela eta frontoian umeen jokuak burutu ziren eta nahiz eta jende gehiegirik ez hurbildu giro onean igaro zuten igande goiza bertara gerturatu zirenak.



Hilabete honetako argazkia Atxuri base-
rrikoek utzi digute. Beraiek esan digu-
tenez 1945. urtean ateratakoa da. Bertan
Kortaberri familia osoa ikusi dezakegu etxeko
atarian. Familia hau oso ezaguna da Mendaro
eta ingurukoaren artean aizkoran eta trontzan izan

du ten ospeagatik. Hona hemen argazkian ager-
tzen direnak. Goian eta ezkerretik eskubira: **Jua-
nita Elorza, Maria Elorza (†), Jose Elorza eta
Lutxi Elorza (†)**. Behean, ezkerretik eskubira:
**Pedro Elorza (†), Isabel Ansola (†), Felisa Elor-
za, Inazio Elorza (†) eta Esteban Elorza.**

3

Ana Vecia

NAHIA

ileapaindegikoa



- **Noiztik lan honetan?** ■ Duela 8 urte, Arantxa Aldazabalekin, 1987an.
- **Ofizioa ala afizioa?** ■ Txikitandik daukadan afizioa, beti gustatu izan zait, eta orain nere ofizioa da.
- **Nori eta nola moztuko zenioke ilea?** ■ Isabel Pantojari aldatuko nioke bere ilekera. Luzea utziko nioke baina desberdin.
- **Egin duzun orrazkerarik arraroena?** ■ Bodaren baterako, "peinado de fantasia" deitzen den horietakoa.
- **Jendeak badaki zer nahi duen ala aholku bila joaten da?** ■ Denetik. Batzuk ideia fijoarekin datoz baina beste batzuk askatasun osoa ematen digute.
- **Krisiaren eraginik?** ■ Bai. Zergak asko, exagerazioa bat igo direlako guretzat, jendeak ere krisia igerri duelako eta etxearen alkiler exageratuak kate motzetik heltzen gaituelako.
- **Ile motza ala luzea?** ■ Motza praktikoagoa da baina biak dira ederrak.
- **Ilea teñitua ala ez?** ■ Tinte klase asko dago eta ilea zaindu egin behar da, teñitu edo ez. Hori da printzipala.
- **Non gustatuko litzaizuke lan egitea?** ■ Hiri handiago batean. Eta kanpora begira Iñaki Sagarzazurekin, bere burua "pelukerotzat" baitauka, ez beste batzuek bezala.
- **Ilea ondo zaindua edukitzeko errezetaren bat?** ■ Txanpu on bat eta suabizantea, biak profesional on batek emanak. Ilearekin arazoak daudenean onean medikuarengana edo pelukeroarengana joatea da, aholku eske.

ANGEL BASTERRETXEA:

"Elizara ez joategatik gazteek ez dutela sinisten esatea, asko esatea da"

Jakina den bezala, herri guztietan ditugu elizak eta ermitak. Baina, ba al dago eliza horiek betetzeko beste apaizik? Egoera gero eta okerragoa dela diote. Zergatik ote? Guzti honi buruz eta beste hainbat gairi buruz hitzegiteko Angel Basterretxea apaizarekin solasaldi bat izan genuen eta honako hauek esan dizkigu.



4

- Noiztik apaiz eta zergatik?
- 1960an izendatu ninduten apaiz, 35 urte daramatzat, beraz, apaiz lanean. Horietako 33 Mendaron eta aurreko bi urteetan Saturrarango seminarioan egon nintzen irakasle bezala. Garai haietan nahikoa arrunta zen apaiz ikastera joatea. Nire kasuan behintzat giro hori nahiko gertu somatu nuen: familiako giroa erlijioarekin oso lotua, ohiturak, bizi baldintzak... Mundu horretan sartzean oso gazteak izaten ginen eta gero, heltzean, bakoitzak bere erabakia hartzen zuen. Ni seminarioan nengotela, Euskal Herrian zeuden bost seminariotan gutxienez 2.000 ikasle egongo ginen.

- Zeintzu dira zure eginkizunak?

- Bi parrokitako ardura daukat eta hospitaleko erlijio zerbitzua ere nere kontu dago. Bestalde, ikastolako haurrei katekesia ematen diet, eguneroko meza... Eta, horrez gain, hiletak, bataioak, ezkontzak, bilerak...

- Betetzen al ditu elizak gaur egun jendearen beharrak?

- Gaur egun jende askok ez dio eskatzen laguntzarik elizari. Hala ere, bada oraindik kristau talde bat

eta horiei erantzun egokia ematen ahalegindu beharko litzateke eliza. Nik gehiago esango nuke, elizak kristau talde hori begiratu, ikusi eta berarengandik ikasi egin beharko luke. Erlijioa ezer ez litzateke izango per-tsonen egoera argitu eta hobetuko ez balu.

- Zela ikusten duzu elizaren eta erlijio katolikoaren etorkizuna?

- Mundu honetako argi emale den neurrian elizak lekua izango du mundu honetan, bestela ez diot etorkizun garbirik ikusten.

- Nola ikusten duzu Mendaroko egoera fede aldetik?

- Beste herri askoren antzera. Nik ez dakit gaur egun ateoak garen edo orain erabiltzen den beste hitz horrek esan nahi duena, hau da, agnostikoak. Elizkizunetan, adibidez, eten bat dago, haurrak, helduak eta adinekoak daude baina gazterik ez. Baina, horrek gazteek ez dutela sinisten esan nahi al du? Hori askotxo esatea litzateke.

- Nola ikusten duzu Munduko eta Euskal Herriko egoera?

- Munduan denok dakigu nor-tzuk diren nagusi. Nik nagusitasun hori hobeto banatua egotea nahi nuke. Euskal Herrian, berriz, hil baino lehenago benetako bake oinarriak sustraituak egon daitezen nahi nuke.

- Zer eskatuko zenioke Mendaroko herriari?

- Herri gaztea da Mendaro. Nik eskatuko niokeena zera da, gazte guztiek bezala amets egin dezala bere etorkizunarekin, fede hori galdu gabe eta jarrai dezala herria heltzen.

- Orain ez daude mojak Mendaron baina zu mojen kapilau bezala etorri zinen gaztetan. Zer oroitzapen duzu haietaz?

- Neretzat ama batzuk bezala izan dira beti eta Mendarorako ere onuragarriak izan dira. Nere eskerra betirako izango da beraietzat eta uste dut Mendaroko herriarena ere hor izango dela beti.

kiliBARREN

Kolaboratzaileak: Joseba Etxeberria, Aitziber Gurrutxaga, Iraide Loiola, Oihana Tarragual, Alaitz Vives, Garbiñe zabala.



Mendaroko Udalaren dirulaguntzarekin argitaratua

Jose Antonio Gonzalez

"Jose Antonio" ileapaindegikoa

**● Zer dela eta ileapaintzaile?**

▶ Aita ileapaintzailea da eta berari ikusten beti gustatu izan zaidalako.

● Noiztik afizio hori?

▶ Betidanik. Ikasten eta lanean bost urte daramazkit dagoeneko.

● Nori egingo zenioke orrazkera berezi bat?

▶ Modelo ospetsu bati, Cindy Crawford-i, adibidez.

● Gizonentzat bakarrik. Zergatik? ▶ Beti horrela izan delako, aurrera begira emakumeentzat ere nahi dugu jartzea.

● Burusoilentzat formula berezirik? ▶ Mementuz ezer ere ez.

● Zure aita baino hobea izateko asmorik? ▶ Mementuz ez.

Intentzioa badut, noski, baina piskanaka joan behar da.

● Arraroak al gara gizonezkoak itxurarekin?

▶ Ez, ez. Herri honetan ez.

● Gustukoak al dituzu patilak?

▶ Bai. Gainera, modan daude. Niri luzeak gustatzen zaizkit.

● Izan al duzu inoiz agujetarik besoetan?

▶ Orain ez, baina haseran izaten nituen. Asko igartzen da.

● Zein da zuretzat estilo apainena?

▶ Daramadana, noski, bestela ez nuke eramango. Motza gustuko dut.

● Zeinen izena da Jose Antonio? ▶ Biona, aitarena eta nirea.

● Nork moztzen dizu ilea zuri? ▶ Aitak.

● Eta zure aitari? ▶ Nik.

● Etortzen den jendea zer da, gaztea ala nagusia?

▶ Denetik etortzen da.

● Ileapaintzalea izateaz gain?

▶ Bizikleta asko gustatzen zait, baita musika entzutea ere.

● Krisia igartzen al da?

▶ Ezin gara kexatu. Oso ondo doakigu.

● Bukatzeko, eskatu desio bat.

▶ Negozioa, eta orokorrean dena, ondo joan dadila.

KOLDO GALDONA

KORRIKA

Ospakizun hau ez pentsa denik

kirol, jai edo kultura

ezta AEKk hartuta daukan

azkenaldiko ohitura

gaur egunean euskararen alde

bete beharreko guda

zibilizatu modura

hitza gudaren lotura

errespetoa aingura

"Jalgi hadi hi euskaraz" eta


eman euskaldun itxura

gure herriko izate ona

zabaldu dadin mundura. (Bis)



JOSU GUENETXEA

 **JOSE ANTONIO** ileapaindegia

•Hiesa eta hepatitisaren kontrako tresneriaz horniturik.

•"KERASTASE" tratamenduak; gizon eta emakumeen ilea zaintzeko metodori egokienak.

Errosario 30. Tel. 74 14 92. ELGOIBAR

ARAZOAK ZURE AHOTSAREKIN?

Hitzegiteko: landu zure ahotsa!

Polipoek, noduloek, ahotsaren erabilera okerrak, etab...
ERAGINDAKO RONKERAK

ANGELA ZABALETA AIZPITARTE

DEITU ☎ 74 15 56

Gutxitu fisikoentzako oporraldiak antolatu dira

Gipuzkoako Gutxitu Fisikoen Federazio Koordinatzaileak, 1995. urterako ezintasun fisiko edo sensoriala duten pertsonentzako oporraldiaren programa antolatu du Foru Aldundiko Gizarte Zerbitzuaren laguntzaz.

Bidaia hauek urtero antolatzen dira eta ezintasun fisiko, sensorial edo organikoren bat izanik, oporrez goza ezin izango luketen pertsonentzat pentsatuak daude. Aipatu oporraldietan 16 eta 65 urte bitarteko pertsonak har dezakete parte, beti ere minusbaliaren bat dutenek. Guzti hauen artean lehentasuna izango dute ezintasun handia edo mugikortasun arazo latzak zein diru sarrera eskasak dituztenek. Pertsona laguntzaile bat behar izaten denean, hauek ere eman beharko dute izena eta hauen bidaia doan izango da. Eskabideak apirilaren 15a baino lehen aurkeztu behar dira Gipuzkoako Gutxitu Fisikoen Federazio Koordinatzailearen lokalean (Sahatsaren Enparantza, 2. 20010 Donostia). Informazio gehiago nahi duenak Udaletxeko Ongizate sailera jo dezake edota 74 10 08 telefono zenbakira deitu.

Prezioan sartzen dira: Benidorm eta Xanxenxora bidaiak autopullmanean eta gainontzeko tokietara hegazkinez. Egonaldia gela bikoitzeko hoteletan eta pentsio osoko errejimenean, bidaiako jatordua eta bidaia aseguruua.



LEKUAK	DATAK	PREZIOA (Subentzionatua)
Benidorm	Ekainak 3-17	18.000 pta
Benidorm	Ekainak 17-Uztailak 1	18.000 pta
Benidorm	Abuztuak 19- Irailak 2	26.000 pta
Benidorm	Urriak 21-Azaroak 4	18.000 pta
Benidorm	Azaroak 4- 18	18.000 pta
Fuengirola	Maiatzak 20-Ekainak 3	20.000 pta
Fuengirola	Ekainak 17-uztailak 1	20.000 pta
Fuengirola	Irailak 2-16	24.000 pta
Fuengirola	Azaroak 4-18	20.000 pta
Xanxenxo	Ekainak 23-Uztailak 2	16.000 pta
Xanxenxo	Uztailak 22-31	19.000 pta
Xanxenxo	Abuztuak 22-31	22.000 pta
Pto Sta. María	Urriak 1-15	26.000 pta



**Metabo erraminta
elektrikoen eskualdeko
banatzailea**

SUMINISTRO INDUSTRIALAK

■ MOZKETARAKO ERRAMINTAK

■ BABES MATERIALEA

■ RODAMIENTOAK

■ LANPARA INDUSTRIALAK

Santa Klara kalea, 24 Tel/Faxa: 74 10 97 • ELGOIBAR •

San Bartolome elizako eraikuntza faseak

■ M.I. Astiazaranek lau fase bereizten ditu San Bartolome elizaren eraikuntzan: hasera, jarraipena (1693an Lucas Longarekin), 1715etik 1744era arte iraun zuen fasea eta 1748-1777 urte bitartea, eraikuntza amaitu arte, nahiz eta erretaulak 1791ean eraikiak izan.

1.- Eraikuntzaren hasera:

■ 1629ko abenduaren 8rako eliza eraikitzeke lurrak erosiak zeuden 100 dukaten truke. Halere, lehen proiektu formalak 1646 eta 1666 urte bitartean burutu zen. Proiektuaren egilea Juan Martinez Agirre izan zen, arkitekto azkoitiarra.

■ Juanez aurkeztu zuen diseinuan saloi erako nabe bakarra, gurutzadura, presbiterioa eta sakristia nabari dira. Sarrera nagusia oinean dago eta dorrea ere bertan kokatzen da. Sabaia hiru ataletan kasko erako gangez eta erdi puntuko fajoi-arkuen bidez estaltzen da.

■ Dekorazioa oso urria da, ia ez dago, moldura batzuk baino ez ditu. Kanpoko aldean, fatxadak forma laukiangularra du harmorearen sendotasuna baoguneen estatusunaren aurrean nagusituz.

■ 1646ko ekainaren 5ean zimentuen sakoneraren adierazpena egin zuen Martinez Agirrek zenbait ofizialek kalegoenen zulaketak egin ondoren. Abuztuan proiektuaren enkantea egin zen. Juan Ansola Ibarguen eta Martin Garatetxeak (lehengusuak eta izen handiko harginak) irabazi zuten eta urrian sinatu zen tratua.

■ 1647ko maiatzaren 2an hasi ziren obrak. Arkitekto azkoitiarra izan arren planuen egilea, badirudi obren zuzendariak Ansola eta Garatetxea izan zirela hauek eraiki zituztelarik presbiterioa eta gurutzadura.

■ 1633ko maiatzaren 27ko kontsejuko batzar orokor batez eztabaidatu zenez, eraikuntza arazoak sortzen hasi ziren. Hau dela eta, ikuskaritza-lanak egiteko Beasaingo maisu hargina ekarri zuten. Honek, eraikitzen ari ziren elizaren horretan hiru arraidura aurkitu zituen.

■ Egoera honi irtenbide bat emateko 1670eko martxoaren 16an Pedro Martinez Odria aukeratu zuten. Bide batez, Olasoko parrokia zaharra konpontzea erabaki zuten 1675. urtean. Horretarako inbertsio handiak egin behar izan zituzten eta eliza berriaren

proiektua zenbait urte geldirik egon zen.

PELLO
ARRIETA



Gabriel de Osoro y Arrillaga (1830-1914)



● Sallobenteko Basueta baserrian jaioa, 1830ean.

● Diplomazia ikasketak egin zituen Sorbonan, Elgoibarko eta Gipuzkoako diplomatiko bakarra izan zelarik.

● Argüelles-eko markesaren arrebarekin ezkondu zen. Diplomatikoa garaian atzerriko herrialde ugari ezagutu zituen. Elgoibarrera abuztuan bakarrik etortzeko aukera izaten zuen.


● Donostia eta Durango bitartean trenbidea jartzeko gestioak egin zituen eta Elgoibarrera argindarra ekarri zuen.

● Alfonso XIII.ak eta honen ama zen Maria Cristina erreginak izendatuta, "Ministro Plenipotenciario" eta Komunikazioetako Zuzendari Nagusia izan zen.

● Erregeak gonbidatuta "Reales Jardines del Campo del Moro"n izaten ziren errezepzioetara joaten zen. Tetuaneko Dukeak eta Medinasidoniako Dukeen gonbidapenak ere jasotzen zituen.

● Bergarako Real Seminarioko ikasle bitxia eta "Sociedad Vascongada de Amigos del Pais" erakundeko presidente izan zen.

● 1914an hil zen, 84 urterekin.



MOTZAK

Deba Arroko Pilota Txapelketa

Gaur, ostirala, gaueko 22,00etan Elgeta eta Elgoibarko Lagunak taldekoen artean Deba Arroko Txapelketari dagozkien eskuz binakako pilota partiduak jokatuko dira Ikastolako frontoian. Infantiletan Ubera II.ak eta Antxiak Karmel eta Garate elgoibartarren aurka jokatuko dute, jubeniletan Aranzetak eta Barrigon-ek Balzola eta Lazarobaster elgoibartarrak izango dituzte aurkari eta azkenik seniorretan, Ubera I.ak eta Elorriagak Ansola eta Alzibarren kontra jokatuko dute. Eskolarteko jokuetan, berriz, finalak jokatuko dira larunbat honetan, hilak 25, Plaentxiko Kiroldegian. Benjaminetan bi partidu: Ikastola B-Plaentxiren aurka, eta Ikastola A Plaentxiren aurka eta infantiletan beste bi partidu: Ikastola B-Deba eta Ikastola A-Plaentxi.

Hamaika domina Ibai gimnasioarentzat

Ibai gimnasioa judokek hamaika domina eskuratu zituzten joan den igandean Zumarragan burutu zen 6 eta 12 urte bitarteko haurren klubaren arteko txapelketan. Guztira Gipuzkoako herri ezberdinetako 140 haurrek borrokatu zuten. Urrezko dominak Xabier Gonzalezek, Aitor Gabilondok eta Ganix Ostolazak irabazi zituzten, zilarrezkoak Aitor Mugerzak, Zuhaitz Azpiatzuk, Ana Estevezek eta Zuriñe Polok eta brontzezkoak Mikel Muñozek, Miren Mugerzak eta Maria Idiakezek.



Ibai Gurrutxaga:

"Aurrera jarraituko nuke 1,75 saltauko banu"

■ **Ibai, hasi berria zara altura jauzian.** - Bai, orain dela bi hilabete edo, Institutuko gimnasia klasean, Manu irakasleak konpetizio bat zegoela esan zigun Mintxetan. Klasean ondo saltatzen nabanez, juteko esan zian.

■ **Eta horrela, Gipuzkoako selekzionarako aukeratu zintuzte.** - Bai, igandean daukagu triangular bat Andorran eta Kataluinan kontra. Gertatzen dana da altura ez jatala gehixegi gustatzen. Hasi nintzian gehixao gustatzen jatala pentsatzen naban. Oin ia zeozer eitzen doten ikustia da gauzia.

■ **Disziplina izango da agian gogorra egiten zaizuna.** - Iguai bai. Orain arte klasian bakarrik eitzen naban altura, oso gutxitan. Baina oin astian bi edo hiru aldiz entrenau bihar dot, eskubaloiko entrenamenduak bukatu eta alturako entrenamenduetara jutiak safrikizioa eskatzen du.

■ **Zure kirola, beraz, eskubaloia al da?** - Bai, eskubaloian aspalditik nabil eta atletismoa orain ezagutu dot.

■ **Batekin jarraitzekotan?** - Alturan segun eta ze marka eitzen doten, ikusiko naban jarraitxu ala ez. Baina bestela, nahixao dot eskubaloia.

■ **Hanka luzeak,**



■ **"muelleak" hanketan, edo... zer behar da?** - Hanka luziak eta inpulso haundixa, hanketan indarra eukitzia. Eta teknika ere bai. Nik teknikarik ez daukat oindiok.

■ **Ikusi duzunetik, zer da teknikoki zailena?** - Zailena neretzako, ipurdixakin barria ez botatzia. Gerrixa okertu bihar da asko, eta gerri gogorra daukat. Horregatik askotan botatzen dot ipurdixakin.

■ **Kontzentrazioa ere funtsezkoa al da?** - Bai, gauza asko kontrolau bihar dia saltatzerakuan. Sorbaldakin edo ipurdixakin ez bada, eskukin botatzen dot barria. Salto ein aurretik dana ondo pentsa eta kalkulau euki bihar da.

■ **Markarik oneena?** - 1,70m. Justu justu lortu naban pasatzia. Ez naban uste lortuko nabanik, eta hori gainditzia zaila ikusten dot.

■ **Zein marka egin beharko zenuke aurrera jarraitzeko motibazioa emateko?**

- Errekorrak nola dau den idearik ez daukat baina 1,75 eginda piska bat gehixao animauko nintzan.

■ **Zer nahiko zenuke jauzi batez gainditu ahal izatea?** - Examinak adibidez.

• Adina: 15
• Zaletasunak:
Ordenagailuak gustatzen jataz
• Beste kirolik? Eskubaloia
• Kezkatzen zaituen arazotzat? Aurrera begira, lana izango ote dogun

Merino zapatak

■ JAUNARTZETARAKO OINETAKOETAN AUKERA ZABALA

■ LARUNBAT ARRATSALDEN IREKITA

Errosario 11/12 behea ☎ 74 34 35

Tarina

Liburudenda-Paperdenda

Prezio oso onak

ireki berria. Zatoz

San Bartolome 16, behea ☎ 74 44 78

Euskarazko argitarapenak sortzeko bekak eta kirol ikastaroak antolatu ditu Kirol Zerbitzuak

Elgoibarko Udal Kirol eta Euskara Zerbitzuek Deba bailarako euskara eta kirol zerbitzuekin bateginda, kirolari gaiei buruzko argitarapenak sortzeko beken 3. edizioa plazaratu dute "Kirola Euskaraz" izeneko kanpainaren barruan. Honez gain, udaberrira begira, euskaraz burutuko diren kirol iharduera ezberdinei buruzko ikastaroak antolatu dituzte.



■ ■ "Kirola Euskaraz" programaren iazko aurkezpeneko argazkia.

Bi eratako ikastaroak egongo dira, batzuetan titulu ofiziala emango da, boleibolean kasu, eta besteetan berriz, ez. Eskaintzen diren kirol iharduerak hauek dira: boleibol entrenatzaile ikastaroa, euskal pilota zaharraren ezagutza, buzeroa, squash (hastapen, I. eta II. mailak) eta patinak (hastapena eta perfektzionamendua). Guzti hauek bakarri burutuko da Elgoibarren, patinaia ikastaroa, hain zuzen. Josean Iñarra hezkuntza fisikoan lizentziatuaren eskutik maiatzeko hiru larunbatetan, 6an, 13an eta 20an izango da Olaizaga kiroldegian, goizeko 9etatik 13,30ak bitartean. Prezio aldetik guztien poltsikoaren

neurriko ikastaroak dira, merkenak 500 ptako kostua dauka eta garestienak 8.000 ptakoa. Izena emateko edota edozein argibiderako Udal Kirol Zerbitzura zuzendu edo bertako 74 44 15 zenbakira deitu.

Argitarapenak sortzeko diru laguntza

Aurten hirugarren beka emango dute kirol gai bati buruzko euskarazko argitalpena kaleratzeko. 1995eko bekaren gaia kirol beroketari, saskibaloitari, eskubaloitari eta rugbyari buruzko fitxa didaktikoak izango dira. Fitxa hauek eskoletako eta kirol taldeetako haur eta gazteak hezitzen

dabiltzan teknikari eta irakasleei zuzenduak legozke. Diru laguntzaren zenbatekoa 100.000 ptakoa da eta lana egiteko epea beka eman eta 4 hilabete bitartekoa izango da. Eskakizuna edonork egin dezake, beti ere, itzulpen zuzenik onartuko ez delarik. Eskakerak aurkezteko azken eguna maiatzaren 22a izango da.

Eskabideak Bergarako Udal Kirol Zerbitzura bidali beharko dira (San Martin plaza, 20570 Bergara, tel:76 59 57). Lanak nola aurkeztu behar diren jakiteko aipatutako zenbakira deitu edota Udal Kirol Zerbitzuko 74 44 15 telefonora.

AGENDA

FUTBOLA Mintxetan Larunbata 25

12,00: Urki B - Aloñamendi (Jubenilak)

16,30: Elgoibar - Zarautz (Kadetea)

Igandea 26

10,00: Eibar Urko - Loiola (Jubenilak)

12,00: Urki - Lagun Onak (2. errejionala)

16,00: Elgoibar - Zumaiako (Neskak)

ESKUBALOIA Kiroldegian Larunbata 25

17,00: Elgoibar - Zarautz (Jubenil mutilak)

PILOTA Ikastolako frontoian Ostirala 24

22,00: DEBA ARROAKO TXAPELKETA

UberaII-Antxia Karmel-Garate (Infantilak)

Aranzeta-Barrigon Balzola-Lazarobaster (Jubenilak)

Ubera I-Elorriaga Ansola-Altzibar (Seniorrak)

EMAITZAK

FUTBOLA

Haundi 4 - Tolosa 0

Elgoibar 3 - Mutriku 2 (2. errejionala)

Elgoibar 0 - Aurrera Ondarroa 2 (Jubenilak)

Dunboa 2 - Elgoibar 4 (Neskak)

Anaitasuna 3 - Elgoibar 1 (Kadeteak)

Elgoibar 0 - Real Sociedad 4 (Infantilak)

ESKUBALOIA

Pagoaga Elgoibar 20 - Pulpo 9 (Kadete neskek)

Ereintza 22 - Elgoibar 16 (Kadete mutilak)

Elgoibar 30 - Usurbil 26 (Jubenil mutilak)

FUTBITOA

Univ Chile 5 - Sporting 2

H. Verboten 0 - Karkis 2

rebel Urbi 1 - Gruas Pana 3

Fotero 0 - Peduskos 17

R. Mundo 3 - Lucky Luke 5

Berrogei Duro 3 - Tropiko 7

Eskubaloi taldeko kadete neskak, Gipuzkoako txapeldunak geratu dira

Eskubaloi Taldeko nesken kadete taldea Gipuzkoako txapeldun geratu da partidu bat jokatzeko duten arren. Leizaran taldearen aurka izango da astebukaera honetan baina ez da erabakioarra izango, dagoeneko txapela irabazia baitaude. Izan ere, sailkapen fasean bi partidu galdu zituzten, biak Leizaran taldearen kontra. Dena den finalerako fasean ez dute partidu bat bera ere galdu.

Larunbateko partidua eta gero, ziurtatuta ez badago ere, igoera faseko partiduak jokatu dituzte. Mailaz igoz gero, Gipuzkoa mailatik Euskadi mailara jokatzera pasatuko lirake. Gogoratu talde hau iaz, Gipuzkoako eta Euskadiko txapeldun izan zela eta Espainiako laugarren eskolarte mai-



■ ■ Kadete taldeko neskak Gipuzkoako txapeldunak dira aurten ere.

lan. Entrenatzaileak ere berdina dira, Erkuden Idiakere eta Jose Peñaranda taldeko arduraduna.

Ezkerretik eskumara atzeko ilarratik hasita: Leire Dieguez, Ana Leon, Erkuden Idiakere (entrenatzaile), Leticia Astray, Ariane Peñaranda,

Patricia Rodriguez, Irma Aldazabal, Ainhoa Aduriz, Ainhoa Torres, Irati Uriguen, Vanesa Gonzalez, Silvia Vazquez, Idoia Oiarzabal, Lore Agirreazaldegia eta Amaia Agirreazaldegia.

Hasi da arrantzarako sasoia

1995. urteari dagokion arrantza sasoiaren irekiera ofiziala izan zen joan den igandean, eta jakina, arrantzaleak ez zuten unerik galdu San Lorentzo eta Saturixo erreketan ahalik eta amurrain handiena harrapatzeko. Eguraldi ona lagun, arrantzaleak arrainak baino gehiago izan omen ziren, baina dena den, pieza ederrik harrapatu zuenik ere izan zen. Arrantza sasoi uztailaren 31ra arte luzatuko da eta asteen zehar egunero, asteartean ezik, arrantza ahal izango da. Errespetatu beharreko amurrainen gutxiengo neurria 20 zmkoa da eta, eguneko eta pertsonako 8 amurrain arrantza ahal izango dira gehienez. Saturixo erreketan arrantza librea da eta San Lorentzoko, berriz, zati batzuetan



■ ■ Debekatua dago 20 zm baino amurrain handiagoak arrantzatzea.

librea eta beste batzuetan mugatua. Arrantza barrutian ibiltzeko *La Union* elkartearen eskatu behar da baimena, eguneko 5 arrantzaleko

gehiengo ezarri delarik. Baimendutako kopurua baino arrantzale gehiago baleude, zozketa egingo da guztien artean.

Zabale anaiak, aurten dobletea

Ibon eta Xabier Zabale azkoitiarrak, 21 eta 25 urte, hurrenez hurren. Zabale anaiak bezala ezagunagoak diren azkoitiarrek irabazi zuten igandean, Azpeitian, Euskadi Irratiak antolatutako Pieza Berrien Txapelketa. Dobletea lortu dute aurten: trikiti sailean irabazle izateaz gain,

fandango sailean ere izan dira txapeldun. Etengabe berritzen ari den trikiti munduan zeresanik izango dute aurrerantzean Elgoibarko Trikiti Eskolako irakasleak diren anaiak. Ibon eta Xabier, Xabier eta Ibon, soinua batek eta panderoa bsteak.



■ ■ **Xabier Zabale aurrez aurre, trikiti eskolako ikasle elgoibartarrekin.**

- Ezer baino lehen, zorionak. Finala, gogorra?

- Eskerrikasko. Beno, piezak aurretik entregatzen dira eta erabakita eukitzen dute zeintzuk diren onenak. Finalerako, trikiti sailean eta fandango sailean, seina pieza sailkatzen dira. Finalean jendeak piezak ezagutzeko jotzen degu.

- **Eta zuek ere aurretik jakiten al duzue?**

- Ez, guk finalera pasatzen geran ala ez bakarrik jakiten deu.

- **Ustekabean harrapatu al zintuzteten bi sariek?**

- Bai, trikitixan esan zutenien irabazle ginala kriston sorpresa izan zan eta bigarrenian ere, fandanguan, txapeldun baginala jakin gendunian pasa-pasa einda geratu ginan.

- **Dobletea beraz.**

- Bai, lengo urtian irabazle batian eta bigarren bestian atera gendun eta aurtengua laugarren txapelketa izan da. Dana dala, finalera jun dan jende guzti hori oso ona da, horregatik ez dao esaterik onenak geranikan. Aur-



"Bietan irabazle ginala jakitean pasa-pasa einda geratu ginan"



ten pieza onenak ein ditzugu baina beste baten beste batzuk izango dira. - **“Auspo zar-auspo berri” izan da sarituetakoa bat. Zeren ingurukoa da?**

- Piezak esplikatzten du gaurreguneko trikitixa modernoa eta tradizionalararen arteko saltsa hori. Trikitixan, letriak inportantzia dauka pusketa hori lau aldiz errepikatzen dalako. Fandangoan ez dao letrarik, “Irriño” izena dauka irabazi duen piezak eta instrumentala da.

- **Eta zuek bide modernotik ala tradizioaletik zabiltzate?**

- Ez batean, ez bestean. Erdi inguru horretan esango nuke.

- **Soinuak ala panderoak, nork agintzen du?**

- Normalian soinuak, panderaua

laguntza izaten da.

- **Eta bikotean, Ibonek ala Xabierrek agintzen du?**

- Sortzen ni ibiltzen naiz beti eta grabazio lanak ere nik eiten ditut. Nik piezak sortu eta etxean entsaiatzen degu bixok.

- **Irakasle ere bazarete, Elgoibarren.**

- Uda partian jaialditan, erromeriatan eta festatan ibiltzen gera baina neguan jeitsi egiten da eta klaseak ematea laguntza bat da. Soinuan 50 bat eta panderoan 20 bat ikasle ditugu.

- **Zertan gusturago?**

- Bietan daude momentu onak eta txarrak, aktuazioetan azkenerako nekatu egiten zara eta klaseak ematen egun batzuk onak, besteak txarrak.

- **Norengandik ikasi zenuten zuek?**

- Epelarre azkoitiarra izan nun irakasle haseran eta gero, nire kasa. Denegatik ikasten da zerbait, zaharretatik eta berrietatik ere bai, Kepa Junkera, Tapia ta Leturia...

- **Dantzarik egiten duzue?**

- Nahiago det jo eta beste batzuek dantza egitea.

- **Zergatik soinuari esaten zaio “infernuko auspo”?**

- Leno dana zan pekatua eta Elizan aldetik kritika gogorak izan zitxun trikitixak eta hortik izen hori.

- **Euskal Herriko Txapela berreskuratzerik?**

- 1991an egin zan azken aldiz eta harrezkeroz ez da berriz egin. Egingo balitz ez dakit. Txapelketa asuntua zaila dao, batzuk ez dao txapelketa eitzeko ados eta eitzekotan igual ez litzake jende asko presentauko.

Katu hankak jarri eta

hormetan gora

Martxoaren 13an hasi zen Morkaikok antolaturiko eskalada ikastaroa. Aitor Esnaola eta Josu Merino dira monitoreak. Toki askotan ibilak dira biak, mendi gailurretara igotzen bai eta eskalatzen ere, harria bai eta izotza ere. Elgoibartar gazte hauen esanetara, 30 neska mutil elkartzen dira egunero polikiroldegiko rokodromoan. Adin guztietako jendea dago eta hilabete arituko dira eskalatzeko zenbait teknika oinarrizko ikasten.

Ikastaro an eskalada deportiboa egiten dute, “zailtasun gutxien duena”. Oinarrizko eskalada ikasi eta prestatuak daude alpinari ekiteko. Hauxez gain, eskalada artifiziala deritzana ere badago, “eskuekin beharrean, seguroak jarri eta estribo batzuen bidez helduz igotzea da”. Printzipioz rokodromoan moldatze-ko asmoa dute, Merinok esan digunez, besteak beste, “kanpora ateratzeak kotxe mugimendu handia suposatzen duelako eta bi monitore bakarrik egoteak 30 ikaslekin ez da batera erraza”. Halere aurrerago beharbada egingo dute irteeraren bat. Lehenengo egunetik hasten dira bideak igotzen, haseran errazanak, noski. Oinarrizko zenbait gauza irakasten zaie poliki poliki beraien kontura ere moldatzen ikasten dutelarik. Esan digutenez, “oreka, noiz eta nola deskantsatu dezaketen eta antzeko trukoak jakitea komeni da”. Beldurra edo inseguritatea izatea normala da, “batez ere zer den ez dakizunean. Baina aurrera egin ahala segurtasuna hartzen da eta gero eta gehiago egin nahi duzu”, adierazi du Aitorrek. Soka bat, arnesak, espresak eta zortzi bat dira beharrezko materialea eskalatzen hasteko, “Materialea nahiko garestia da. Haseran gehienok erdibana erosten ditugu gauzak eta gero, gustatuz gero, norberak ahal duenean bere ekipo propioa osatzen du”. Ikastaroan, Morkaikok utzitako

materialea erabiltzen dute. Gehienek zapatiletan eskalatzen dute, “batzuk ‘katu hankak’ dituzte eta hauekin joaten dira”. Mementuz ez da inor erori eta jausiz gero ere, ez litzateke ezer gertatuko, “ongi aseguruak baitaude”. Gainera, nola jausi behar den irakasten zaie. Rapelatzen, soka ipintzen, engantxeak egiten eta abar ikasten dute. Eskalatzaile batek indarra behar du izan, besoetan batez ere, baina, era berean, arintasuna ere, agilidadea oso garrantzitsua da, “indar asko duenak bezain ondo edo hobeto igo dezake edozein horma agilidadea handiko norbaitek”.

Aurrera begira, jendeak hala nahi badu, talde bat osatu eta jarraitu ahal izango litzateke, “gauza guztiak bezala, eskalatzeko ere jarraitpen bat izan behar du, bestela ahaztu eta praktika galdu egiten da eta”.



Etxebizitzak

PISU BAT erosiko nuke.
☎ 74 08 20
Gauzez deitu

APARTAMENDU BAT daukat Jakan, udaran alokatzeko.
☎ 74 15 22

PISU BAT alokatzen dut. Altzari eta guzti.
☎ 74 32 45
Lan orduetan

3 hilabetetarako bi bainu gela dituen ETXE BAT alokatuko nuke.
☎ 74 41 32 Edurne

APARTAMENDU BAT daukat Benidormen alokatzeko. Levanteko hondartzako lehen ilaran. Igerilekua eta aparkalekua.
☎ 74 16 57

ETXEBIZITZA BAT saltzen da. Santa Klara 24, 5-B.
☎ 74 32 98

Lana

ENPRESA ZIENTZIETAN LIZENTZIATUAK kontabilitate balantzeetarako analisi eta auditoriako partikularrak ematen ditu. Maila guztiak.
☎ 74 03 95

ENPRESARIALESETAN DIPLOMATUA ofizina lanak edo beste edozein lan egiteko prest dago.
☎ 74 39 89 Mari Karmen

Neska euskalduna ETXEKO LANAK edota UMEAK ZAINTEZKO prest dago. Goizez.
☎ 74 09 02 Kristina

HAURRAK ZAINDU edota ETXEKO LANAK egiteko prest nago.
☎ 74 43 16 Mari Karmen
Goizez

Edozein testu mota ORDENAGAILUZ PASATZEN DA. Grafikoak sartzeko aukera.
☎ 74 41 77 Idoia
☎ 74 22 77 Iratxe

Bestelakoak

7 giltz zituen LLABERO BAT galdu nuen herenegun Ego-Toki inguruan. Topatu dituenak, mesedez deitu.
☎ 74 39 77 / 74 20 99

Otsailaren 19an ARGAZKI KAMARA BAT galdu nuen Sigmako zubia eta San Frantzisko iturriaren bitartean. Chinon markakoa da.
☎ 74 27 89 Mari Karmen

TXIRRINDULARI KASKO BAT eta ANTIOJUAK GALDU nituen hilaren 12an BBV aldameneko kailejoan. (Biona pentsuen parean). Jaso dituenak mesedez deitu.
☎ 74 42 93

HISTORIALARI BAT eskaintzen da genealogia egiteko.
☎ 88 30 72 Arkaitz
Iluntzeko 8etatik aurrera

CARITASek sukalderako eta salarako ARMARIO BAT behar du.
☎ 74 15 09 ☎ 74 12 57

Garajeak

GARAJE BAT dut alokatzeko pista beltzaren azpian, Institutu parean. Marraduna.
☎ 74 39 19

GARAJE BAT saltzen dut ANAYAK edifikazioan. 15m² eta bi planta.
☎ 74 25 01 / 10 82 43

GARAJE itxi bat saltzen dut santa Ana 46 zenbakian
☎ 74 13 67

GARAJE BAT alokatzen dut San Roken, 5 zenbakian. Marraduna.
☎ 74 02 61

Salerosketak

Super nintendo KONTSOLA BAT SALTZEN DUT. Mando batekin, 8 jokurekin eta adaptadorea Amerikar eta japoniar jokuentzat. Dena 23.000 pta
☎ 74 05 80/74 18 34 Asier

KANPING-DENDA BAT saltzen dut. Oso handia da eta egoera oso onean dago.
☎ 74 15 22

MATRIMONIO LOGELA oso bat, 90eko bi ohe dituen LOGELA oso bat, MATRIMONIO LOGELA puente bat, SALA oso bat eta SUKALDE oso bat SALTZEN DITUT trasladoagatik.
☎ 74 33 19
Itik 3etara / 7,30etatik 10etara

FIAT TIPO 1.8 16 v. BAT saltzen dut. Kilometro gutxi ditu, direkzio asistitua, itxiera zentralizatua, sapai solarra eta leihoak isteko mekanismo elektrikoa. SS-AL
☎ 10 74 79

LOKAL BAT DAUKAGU SALGAI Foruen enparantzako arkupeetan. Lehen Iturri taberna izandakoa.
☎ 74 13 77

YAMAHA TZR 80 cc BAT saltzen dut. Oso ondo dago. Prezio interesgarria.
☎ 74 41 12 Nekane

CUERPO MINOLTA 7.000 BAT saltzen dut. Prezio oso interesgarria.
☎ 74 04 38 / 74 08 00 Aitor

2 urtetako SIBERIAN HASKY BAT saltzen dut. Papelak dauzka eta pedigreea ere bai.
☎ 74 38 41

MUSIKA KATE BAT saltzen dugu. Philips markakoa, erabili gabea eta berri-berria. Gauzez deitu.
☎ 74 26 26 / 74 20 31

PREMIAZKO TELEFONOAK



OSASUNA

Anbulategia:
Larrialdiak.....461111
Txanda hartzeko.....743354
Planning742950
Alkoholiko Anonimoak..740385
D.Y.A (anbulantzia) ..464622
Gurutze Gorria.....743864
Mendaroko Ospitala.756264
Drogomenpekotasun Z.741008
Odol Emaileak743936

GARRAIOAK

Eusko Trenbideak.....740442
PESA (Eibar).....112131
Taxi Geltokia.....740898

UDALA

Euskara Zerbitzua.....744366
Kirol Zerbitzua744415
Kultura Zerbitzua.....742158
Mendaroko Udala756100
Ongizate zerbitzua...743736
Udaletxea741050
Udaltzaingoa741394

BESTELAKOAK

Caritas740142
Elgoibarko Izarra.....741626
IMI.....741196
Kontsumo Bulegoa ...743088
Liburutegia743525
Musika Eskola742145
Mintxeta744315
Parrokia.....740842
Polikiroldegia741361
Postetxea.....741547

HIRUGARREN ADINA

San Lazaro Egoitza...740296
Zaharren Biltokia.....740526

IKASTETXEAK

Herri eskola.....74 08 79
I.M.H.74 41 32
Institutua74 02 67
Ikastola74 44 41
L.H.I.....74 44 80
Pilar Ikastetxea74 13 31

KOMUNIKABIDEAK

BARREN.....74 41 12
El Diario Vasco74 40 73
El Mundo74 22 67
El Correo Español...74 10 82
Egin.....11 84 21
Deia74 11 57
Zazpiki Irratia74 34 74

24 OSTIRALA

19,00 EUSKAL HERRIKO OTARGINTZA ERAKUSKETA

Egilea: Luis del Barrio
✓ Kultur Etxean
Apirilaren 11 arte

22,15 ZINEA
"Acoso"

25 LARUNBATA

19,30-22,15 ZINEA
"Acoso"

26 IGANDEA

10,45 KORRIKARAKO AUTOBUSA

✓ Sigman

11,45 FILATELIA ELKARTEAREN BATZAR OROKORRA

✓ Merkatu Plazako Egoitzan

12,30 ILUNBE ORKESTAREN KONTZERTUA

✓ Herriko Antzokian
I. Inazio Bereziartua
Musikeskolaren X. urtebetetzeko ekitaldien barruan
Sarrera doan

16,30 ZINEA
"Pesadilla antes de Navidad"

19,30-22,15 ZINEA
"Acoso"

27 ASTELEHENA

22,15 ZINEA
"Acoso"

28 ASTEARTEA

22,15 ZINEA
"Pesadilla antes de Navidad"
(Ikuslearen eguna)

30 OSTEGUNA

19,30 SOINU KONTZERTUA

Soinujolea: Friedich Lips errusiarra
✓ Herriko Antzokian
I. Inazio Bereziartua
Musikeskolaren X. urtebetetzeko ekitaldien barruan
Sarrera: 350 pta nagusiak
200 pta haurrak

31 OSTIRALA

20,00 TANBORRADAREN BILERA
✓ Kultur Etxean
22,15 ZINEA
"Frankenstein"

ZINEA



Pesadilla antes de Navidad

Zuzendaria: Henry Selick
Produktoreak: Tim Burton, Denise Di Novi.
Iraupena: 78 min.
Halloween hiriko kalabazen erregearen, Jack Skellington-en ilusio eta anbizioak kontatzen ditu pelikulak. Halloween egunean Jack-ek mundu errealerako urtero egin ohi diren txantxa makabroak antolatzeaz asperturik dago. Horrelako batean, ezustean, Gabonetako Hiria sarrerarekin topo egiten du aurrez aurre eta hango kolore disdiratsu, jostailu, dekorazio eta giro atseginarekin aluzinaturik geratuko da.

txandak

FARMAZIAK:

EGUNA	EGUNEZ	GAUEZ
25, larunbata:	Bidasolo	Bidasolo
26, igandea:	Bidasolo	Bidasolo
27, astelehena:	Yudego	Zabaleta
28, asteartea:	Yudego	Zabaleta
29, asteazkena:	Yudego	Zabaleta
30, osteguna:	Yudego	Zabaleta
31, ostirala:	Ormazabal	Zabaleta

FARMAZIEN ZUZENBIDEAK:

Zabaleta: Kalebarren 9, Plaentxi
Te. 75 13 84 1

OKINDEGIA:

26, igandea:
IDARRAGA ETA EIZAGIRRE

ZINEA



Acoso

Zuzendaria: Barry Levinson
Antzezleak: Michael Douglas, Demi Moore, Donald Sutherland.

Tom Sanders (M. Douglas) puntako teknologiarekin aritzen den DigiCom enpresan egiten du lan. Beste enpresa batek DigiCom erosteko asmoa dauka. Operazio honen ondoren, presidenteorde izendatuko dutelakoan dago Sanders. Baina usteak ustel geratzen zaizkio hautatu ez dutela eta, nagusi berria Meredith Johnson (Moore) dela jakiten duenean. Hamar urte lehenago Sanders eta Meredith-ek maitasun istorio bat bizi izan zuten eta orain azken honek insinuazio sexual hutsak baino haruntzago doazen proposamenak egingo dizkio Tom Sanders-i.

LAGUNMOBIL
CARRROCERIAS



Zure kotxearen zerbitzura

Olaso poligonoa
Tel. 74 44 30
Faxa 74 44 36
20870 ELGOIBAR



ESKA EZAZU ORDUA ZURE JAUNARTZE ARGAZKIETARAKO

**Bizitza guztirako oroigarria
izango duzu**

*Ez laga azken momenturako
Zatoz!*

Santa Ana, 5 - Tel. 74 06 46 - ELGOIBAR

IBAR-TXIKI

EDARI BANATZAILEA

☎ 740503

80 puntu 100en
ganean "GUIA PENIN
DE LOS VINOS DE
ESPANA"n.
Ardo gazteen
puntuazio altuena,
"Crianza", "Reserva"
eta "Gran reserva"
direlakoan gainerik



Lateko Ardoak